57. zenbakia - 2007ko urtarrila

# artzape

GETARIARRON TOPAGUNEA

JOSEFINA AZKUE

] HERRIKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALA]

SAN ANTON JAIAK]

# Itsaso erditik itsasertzera

# JESUS LASA

SOKOA
Giro alaia eta jatorra!
Elkano 17. Tel.: 943 140 952

OSTOLAZA EDARITEGIA
kaxuelitak eta plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

Saiazgetaria HOTELA
BILERA GELA DAUKAGU
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

SAN PRUDENCIO JATETXEA
JATETXEA - ERRETEGIA
20808 GETARIA
(ERREPIDETIK 600 METRORA)
IKUSPEGI BIKAINAK
943 14 06 27 - 943 14 04 11

OSTOLAZA ANAIAK
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110

kutxa

ITSAS MENDI
gutiziak
Kaia z/g
Tel.: 943 140 993
Mugikorra: 649 947 855
20808 GETARIA

POLITENA
TABERNA JATETXEA
Pintxo bereziak • Bokata labekatu berriak • Berezitasuna menutan
Kale Nagusia, 9-11 • Tel. 943 140 113 • 20808 GETARIA

ENBATA
Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA 943 424797

ELKANO
Jatetxea
Herrerieta, 2
Telefonoak: 943 14 00 24
943 14 06 14
20808 GETARIA

BABEXA
Getariako Dendari Elkartea

ERROTA
OPIL - OKINDEGIA
Elkano, 7
Tel.: 943 140 017

KAIA JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

INDAUX
Tel.: (+34) 943 899 100 Fax:(+34) 943 899 101 indaux@indaux.com
INDUSTRI AUXILIARRAK (INDAUX), S.A. SAN PRUDENTZIO, S/N. 20808 GETARIA
APDO. 132. E-20800 ZARAUTZ (GIPUZKOA) www.indaux.com

*Otsaileko laburrean, katuak gau lapurrean*

Argazkia: Amaia Aramendi

# artzape

**57. zenbakia**

## 2007ko urtarrila


]5/Inkesta: **Txakolina**

]6-7/Getarian zer berri?

**Korrika 15**

**Zaldi lasterketa**

]8-11/Elkarrizketa: **Jesus Lasa**

]12-13/Argazkien Txokoa: **San Anton Jaiak**

]14-15/Erreportaia: **Gaztelekua**

]17/ELAN-EUSKADI

]19/Petrilaren harritarteetatik

]20/Katraponako petriletik: **Josefina Azkue**

]23/Akordatzen: **Inauteriak**



artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

Gure Txeru Elkartea

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Amaia Iribar eta Maider Ostolaza [lan taldea] Izaskun Larrañaga, Monika Uzkiza, Ane Azkue, Jon Illarramendi, Josune Urresti, Harkaitz Etxaniz, Kepa Iribar, Zigor Saizar, Amets Etxabe, Irantzu Ezenarro [kolaboratzaileak] Julene Iturbe, Cesar Blanco [maketazio berria] Vicente Dávila [argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape [inprimaketa] Gertu [tirada] 1.125 ale
[lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

**Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

# ] gutunak

Iparrak orain 3 bat urte eta erdi 12 – 16 urteko gazteen inguruko hausnarketa Gizarte – ongizate batzordera eraman zuen. Hainbat eztabaida eta gero azkenik, Gabonetan Alhondigan Gaztelekua ireki da, horretarako beharrezkoak ziren egokitze lanak egin eta gero.

Idatzi honetan ordea, ez gara arituko urte hauetan batzordean egindako proposamen, entzundako iritzi, Gaztelekuaren egokitasunaren... inguruan. Herriaren egituraketan/antolamenduan, PNV – EAk urte luzeetan daraman plangintza eta aurreikuspen faltak sortu duen beste ondorio kaltegarri batez baizik. Hau da, kultur egitasmoak aurrera eramateko dagoen espazio faltaz hain zuzen ere.

PNV – EAk Gaztelekua Alhondigan jartzea erabaki du. Urte guztian zehar Alhondigan egiten diren ekitaldi, hitzaldi, erakusketa, diapositiba emanaldi,... baldintzatu eta kultur egitasmo desberdinak hipotekatzearen alde egin du PNV – EAk. Lehen Kultur egitasmo desberdinetarako Alhondigak zituen antolaketa eskasia nahikoa ez eta orain, Gaztelekuaren ordutegi eta ekimenei begira egon behar getariarrei jarduera desberdinak eskaintzeko. Eta hori, espazio fisikoak jasan dituen aldaketek uzten badute.

Leku egokirik gabe geratu izana ordea, aurreikusi zitekeen ondorio bat izan da. Izan ere, urteetan zehar PNV – EAk gutxi batzuen interes pertsonal eta ekonomikoei lehentasuna eman die Getariarrenak alboratuz. Herriko nahiz kanpoko jauntxo batzuen nahiak gailendu dira herritarrenak 2. mailan geratuz. Bestela nola uler liteke Getariarrontzat lekuak mugatu eta okertzen joan diren bitartean, Balentziaga fundazio pribatuari Aldamar jauregia, Aldamar parke zoragarria edota autobuseko geltokian dagoen Udal lokala doan uztea? Oraindik ere Txakolin elkarteak herriaren erdialdean Udalaren espazio bat doan izatea? Txeruri beharrezkoa (ongi merezita) duen gune hori kentzen saiatzea?

Iparrarentzat ezinbestekoa da behingoz, PNV – EAk urte luze hauetan gutxi batzuen alde daraman politika baztertu eta Getariarron behar eta interesetara egokituko den Udala eraikitzea. Alhondigarekin gertatutakoa ez gertatzeko, etorkizun ertain nahiz luzera begirako aurreikuspen eta plangintza bat egin beharra dauka Udalak, herritarron iritzi, proposamen eta erabakitzeko bitartekoak jarriz. Epe motzera begiratuz, ezinbestekoa du Udalak, herriarenak diren espazioak berreskuratu (autobus geltokiko lokalak, Aldamar jauregia) eta ekimen desberdinetarako egokitzea.

Iparra Herri Bilgunea

**OTSAILEAN EZ DA ARTZAPE ALDIZKARIRIK IZANGO. MARTXOAN ELKAR IKUSIKO DUGU.**

**ONGI IZAN!!!**

Zure gutuna Artzapen argitaratzea nahi baduzu, Txeruko postontzian utzi, Eskualtxetara ekarri edo artzape@topagunea.com helbidera bidali zure izen-abizenekin. Gutunak gehienez 200 hitz izan beharko ditu eta luzeagoak direnak mozteko eskubidea izango du Artzapek. Ez dugu testu iraingarririk onartuko eta Artzapek ez du bere gain hartuko argitaratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrilan espezialitatea
kaia, 1
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

# ] inkesta

## Gustukoa al duzu txakolina?

**Argazkia:** Manzisidor

Egia esan behar badut txakolina ez zait gustatzen, eta aurtengoari buruz ezin dut iritzirik eman. Parrandan irteten naizenean beste motatako edariak edaten ditut.

**Irune Zulaika**

Aurtengo uzta ez dut probatu, eta egia esan, ez naiz oso txakolin zalea; normalean garagardoa edaten dut.

**Eneko Etxegoien**

Txakolina ez dut gustuko, ardoa eta horrelako edariak ez zaizkit gustatzen; beraz ezin dut iritzirik eman. Jende ugari ibili zen herrian eta San Anton egun zoragarria igaro genuen.

**Ana Elizegi**

Txakolina ez zait gehiegi gustatzen; gustatzen zaidan bakarra upelekoa da. Normalean garagardoa edateko ohitura daukat.

**Gorka Bordagarai**

## Artzapetik begira

**Julene Iturbe**

"Haurrak orduak errespetatzen jakin behar du", "lurrean ez esertzeko esaten diot baina hala ere eseri egiten da", guregana etorri nahi du lo egitera eta ez, bakarrik egiten ohitu behar du", "dena ahora sartu nahi du", "batzuetan oso amets txarrak izaten ditu", "ez du nahi kakarik egin", "ezpainak koskatzen dago denbora guztian", "besteei hozkada egiteko ohitura du", "negarra gorde egiten du, ez du ateratzen", "lagunen erasoen aurrean ez daki defendatzen", "lagunek, beti berak nahi duena egitea gustatzen zaio", "haur txiki-txikia bezala izatera dabil denbora guztian", "sukarra izaten du eta ez dakigu zerk ematen dion"…

Horrelako esaldiak behin eta berriz entzuten dira gure artean.

Bizitzako lehenengo urteetan gertatzen denaren nondik norakoak gure aurrekoengandik, gure intuiziotik, "herriko plazatik", eskolako andereñoarengandik, irrati, telebista, etab.-etik jasotzen dugu.

Noski asko dela gure aurrekoek transmititutako jakituria, eskola eta baita hemendik edo handik ateratzen dugun informazio apurra ere; baina argi dagoena da, gizakiok ugaztunen erreinuan gaudenez, izadi guztiaren zati izanik, bizilege unibertsal batzuk ditugula; bai Getariako haurrak, bai Afrikakoak edota munduko beste edozein txokoko haurrek ere. Behar unibertsal batzuen menpe gara hazitik geroko guztian.

Heziketan garai, gizarte edota kultura desberdinen eragina zuzen-zuzenekoa dela ere egia da: gure aiton-amonen edo gurasoen garaiak gaur egunekoaren arrunt desberdinak ziren, Afrikan duten bizimodua hemen dugunaren desberdina da, gurasoen desioak edo beraien denbora librea modu desberdinez ikusten da, haurtzaindegiak, estraeskolarrak, "makinitak" edo ordenagailua…

Baina horrela da, ez hobeago ezta txarragoa ere: desberdina. Bizi garen bizimoduaren parte gara eta horretan nahiko lan!

Beraz, nola bilatu oreka? haurrengan zertan du eragina aurreko guztiak? Zerri erreparatu?

Gure maisu-maiestrarik onenak beraiek. HAURRAK; beraiek gure bizimodura egokitu behar dute, baina baita guk beraienera ere.

# Korrika 15

## *Heldu* korrikari martxoaren 24an

Bat, bi, hiru, lau… hamabost; 1980an atera zen lehen korrika: orduan, Oñatitik Bilborako ibilbidea izan zuen; aurtengo 15. Korrika izango da Hamar egun: horiek izango dira korrikak, gelditu gabe, Euskal Herri osoa zeharkatzen igaroko dituen egunak. Korrika 15ak, 2.100 kilometro baino gehiago izango ditu aurretik, martxoaren 22an Karrantzatik abiatu eta apirilaren 1ean Iruñeara iritsi bitartean. Korrikaren aurtengo lelo nagusia *Heldu* izango da: hitzari, lekukoari, elkarlanari,euskarari eta herriari. Aurtengoan, euskal emakumeak izango dira omenduak, euskararen eta euskal kulturaren mantentze, berreskurapen eta etorkizunean izan duten paperagatik.

Aurten ere, Getarian Korrika Batzordea eratu da: korrika Getariatik pasa bitartean, egin behar diren lan eta ekintza guztiak antolatzen jardungo dute. Batzorde horren datorren bilera, otsailaren 1ean izango da Getariako liburutegian, arratsaldeko 17:30ean; Korrikaren alde lan egin nahi duen edonor ager daiteke bilera horretara.

Aldaketarik izan ezean, Korrika 15 martxoaren 24an pasako da Getariatik, gaueko 23:28ak aldera; beraz, animatzen bazarete, badakizue, egun hori larunbata izanik, afalostean, zapatilak jantzi eta korrika pixka bat egitera: *tipi-tapa, tipi-tapa, korrika*… Korrikak merezi du eta!




**Aurtengo *Korrika 15*aren ibilbidea.**

# Iribar anaiak: lautik lau

Urtarrileko azken igandean Federatu Gabeko Gazte eta Helduen IV. Eskuz Binakako Pilota Txapelketa jokatu zen Getariako frontoian. Urrian hogei bikotek eman zioten hasiera Gure Txeru Elkartean antolatzen duen norgehiagoka horri, eta azkenean, hiru hilabete geroago azken hiru urteetan garaile izan diren Oier Iribar eta Josu Iribarrek lortu dute ligako finalaren txapela Andima Iribar eta Gorka Areizagaren aurka; Andima eta Gorka partida osoan aurretik joan arren, azkenean Iribar anaiak 22-21 irabazi zuten. Ligako 3. eta 4. sailkatuak, hurrenezhurren, Eneko Esnal-Joseba Esnal eta Beñat Etxabe –Jon Osa izan ziren; partida 22-20 bukatu zen.

Kopako finalean, Erramun Aranguren eta Juan Luis Urresti nagusitu ziren Iñigo Olabarri eta Joxe Mari Zenekortaren aurka, 19-22 irabazi ondoren.

Bejondeiela guztiei, eta batez ere, zorionak Iribar anaiei aurtegoan ere txapelari eutsi baitiote txapelari.

**Pilota finaleko partaideak.**

**Oier eta Josu Iribar txapeldunak.**

# Ane Azkueren lana izan da saritua

Babexa Dendari Elkarteak antolatu duen Logo Lehiaketaren irabazlea Ane Azkue getariarra izan da; guztira zortzi lagunek hartu dute parte lehiaketan, eta azkenean, Artzapeko kidea den Anek aurkeztu duen lana izan da epaimahaiarentzat egokiena, eta 200 euroko sariajaso du. Zorionak, Ane!

**Irabazlea eta Babexa elkarteko ordezkaria.**

# Lormendiko eskailera mekanikoak

Lormendi aldapako eskailera mekanikoak jartzeko lanak urtarrilaren 24an hasi ziren, eta maiatza ingururako amaitzea espero da.

Lan horrek bi zati izango ditu: bata, obra zibila izango da: UTE Lormendi Getaria arduratuko da lan horretaz (Altuna eta Uriak egingo du lanaren zati handiena); bestea, eskaileren muntaia: Thyssen enpresa alemaniarra izango da lan horren arduraduna. Lan guztiaren kostua 1.250.265 eurotakoa izango da.

**Lormendi aldapako lanak.**

# Xabin Lazkano garaile *Pass* zaldiarekin

Zaldi Zale Taldeak antolatuta, hilaren 21ean, IV. San Anton Zaldi Lasterketa jokatu zen Malkorbe hondartzan, eta giro pattala izan arren, jende ugari bildu zen. Guztira 23 parte-hartzaile izan ziren, 18 lagun hamalau urtetik gorakoak eta 5 beherakoak. Horien artean lau getariar: Juan Luis Urresti, Xabier Lazkano eta Xabin Lazkano helduen mailan, eta Iker Goikoetxea hamalau urte bitartekoen mailan.

Bestalde, aurten lehen aldiz, hamalau urtetik beherako gazteek eta emakumezkoek parte hartu zuten, ete horrez gain, domaren ikuskizunaz gozatu ahal izan zen.

Xabin Lazkano getariarra izan zen aurtengo lasterketaren garailea helduen txandan, eta gazteen txandan, aldiz, Itziarko Mikel Agirrazabalak lortu zuen lehen postua.

Xabin Lazkanok lasterketa horretan txapela lortzen duen hirugarren aldia da. Lasterketarako ahal duen guztia entrenatzen jardun duela esan digu Xabinek: "Hondartzara jaitsi izan naiz entrenatzera, baina lanarengatik, ez nahi adina aldiz. Aurten maila handia egon da, jendea oso preparatuta etorrri da, eta gainera, zaldi oso onak ikusi dira". Irabaztea, kanpotik ikusi den bezain erraza ez dela izan aitortu digu, eta txapela lortzean zer sentitu duen galdetzean, zera erantzen digu: "Entrenatzean pasatzen ditudanak pasa eta gero... oso gustura nago".

Zorionak, Xabin, eta datorren urtean, laugarrenaren bila!

**Xabin eta bere zaldia, *Pass*, helmugara iristean.** **Argazkia: J. M. Azpeitia.**

# Eskola Arteko saskibaloi txapeldunak

Eskola Arteko Kirolean, Iturzaeta Herri Eskolako 5. mailako neska-mutilak finalera iritsi ziren saskibaloian alebinen mailan. Hilaren azken igandean jokatu zuten finala Zarauzko Antoniano Ikastetxean: mutilen taldeak, 71-66 irabazi zuten, Antonianoko ikasleen aurka. Nesken taldeak irabazi ez arren, aurtengoan ondo merezitako bigarren postua lortu dute.

Animo, eta zorionak guztiei!

**Saskibaloi txapeldunak.**

## Iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Plana

Tokiko Agenda 21 Tokiko Ekintza Planaren bitartez artikulatzen eta zehazten den Udalaren iraunkortasunerantz aurrera doan prozesua moduan definitzen da. Horrela Tokiko Agenda 21ek tokiko agintariek Udalaren ingurumen hobekuntzarako eta hobekuntza sozialerako eta ekonomikorako jarduerak beren gain hartzeko konpromiso politikoa eratzen du.

Tokiko Agenda 21en prozesuak ondorengo lan faseak jarraituz garatzen dira: 1) Martxan jartzea; 2) Diseinua –diagnostikoa eta plangintza–; 3) Ezarpena eta jarraipena. Azken fase hau aurreratua dagoenean berrikusketa egiten da; gero, diagnostikoa eguneratu eta Plan berria lantzen da.

Diseinuak zein Tokiko Ekintza Planen geroko ezarpenak iraunkortasunaren aldeko ezaugarriak eta ezaugarri estrategikoak, zeharkakoa, parte-hartzaileak eta operatiboak izaten saiatu behar dira.

Hainbat urterako planifikatu ondoren, Plana urteroko eskalan edo eskala txikiagoan garatzen den udal kudeaketaren programazioaren eta garapenaren ohiko praktikarekin lotu nahi da. Beraz, Planaren ezarpen zehatza eta ikusgaia egiten lagunduko duten jarduera mugarri hurbilagoak eta mugatuagoak ezartzea beharrezkoa da.

Testuinguru honetan, Ekintza Planaren urteroko kudeaketaren ezarpena bereziki egokia da TA21en egindako jarduerak urtero komunikatzeko eta baloratzeko (Planaren ezarpenaren ebaluazioa); era berean, hurrengo urtean egin beharreko jarduerak ere ezarri behar dira, (Planaren urteroko programazioa) eta Udaleko aurrekontuei lehentasunarekin lotuko zaie.

Ekintza Planen urteroko ebaluazioak eta programazioak jarduerak ezartzerakoan indartu behar diren ezaugarrien integrazioa errazten du; Udalaren zenbait zerbitzuen inplikazioak (zeharkakoa), eguneroko udaleko kudeaketan Ekintza Plana sartzeak (eragingarria) eta parte-hartze organoen finkatzeak (parte-hartzailea) eragin berezia dute. Era berean TA21en ezarpenean eragile gakoak diren hiru alderdi horiek prozesu mota horietan identifikatutako zailtasun nagusiak dira.

# Jesus Lasa

**Bizitzaren zati handi bat herritik kanpo igaro du: Espainia, Frantzia, Holanda, Alemania, Hungaria, Austria, Libia... herrialdeak ezagutzeko aukera izan du. Abenduaren 15ean, hirurogei urtebetetzearekin batera, agur esan dio bizimodu horri. Orain lasai bizitzeko asmoa du: familiaz gozatu eta duen baratze koxkorrarekin pixka bat entretenitu. Ohituko dela dio, hala izango ote da?**

"Uxoti" baserriaren atzealdean duen lur zatian lanerako prest.

**Nola bururatu zitzaizun Petrolio Plataforma batean lan egitea?**

Nire anaia baten bidez sartu nintzen mundu horretan; berak, Esso Aquitaine izena zuen Petrolio-Konpainia batentzat egiten zuen lan. Konpainia horrek lagun bat behar zuen lanerako, eta nik ikasketak bukatu berri nituenez, anaiak bertan hastera animatu ninduen.

**Nora bidali zizuten?**

Pasaiatik iparraldera bost bat ordu itsasontzian joanda, Petrolio-Plataforma batera; han sei hilabete pasa nituen. Bertan nengoela, behin baino gehiagotan ikusi genituen Getariako ontziak pasatzen antxoa garaian; hala nola, nirekin zegoen lagunari esaten nion: "ontzi horrek hala izena du", eta hark ez zidan sinisten, urrutira nola ezagutuko nituen ba! Behin "Piedad" ontzia hurreratu zen, eta elkar agurtu genuen.

**Han bukatu zenuenean, jarraian beste plataforma batera joan al zinen?**

Ez, zazpi urte pasa nituen lanean Zarauzko altzairu fabrika batean, baina han lana gutxitu eta berriro anaiak lana bilatu zidan Burgoseko Valdeajos herrian; izan ere, herri hori izan zen estatu espainiarrean petrolioa bilatu zen lehen lekua. Handik Cadizera bidali ninduten, eta bertara, emaztearekin eta semearekin joan nintzen.

**Cadizen denbora luzean jardun al zenuen?**

Hango proiektua bukatu arte egon ginen, 6/7 hilabetez; asko zulatu zuten inguru hartan: zulo txiki ugari, baina ez zuten produkzio handirako balio.

**Nolakoak izaten dira zuloak?**

Bi zulo mota egiten dira: bata, produkziorako balio duena, gasa edo petrolio poltsa bat bilatzean; bestea, esplorazio zulo izaten da, hau da, esplorazio sismikoen bidez formazioak aztertzen dira, eta ondorioz, poltsaren bat egon daitekeen edo ez ikusten laguntzen dute.

**Cadizetik Huescara bidali zizuten, Sabiñaniegora; zer motatako zuloak ziren hangoak?**

Batez ere esploraziorako zuloak izan ziren; hara, behin esplorazio bat egitean gasa ateratzen hasi zen, baina ezin zen kontrolatu eta azkenean su eman zitzaion, gas guztia erre arte.

**Beraz, arriskua inguruan izaten duzue, ezta?**

Bai, nahiko lan gogorra da: gasarekin lan egiteak, leku librean lan egitea suposatzen du, itxiturarik gabe; izan ere,

**Baratzean ez dute nahi gehiegi landatu, etxean jateko adina bakarrik.**

gasa ihesi eta leku itxi batean pilatzen bada, lehertzeko arriskua nabarmena da.

**Bilatu al zenuten poltsarik?**
Ez, gasa pitzadura batzuetatik zetorren, eta ezin izan zuten poltsa bilatu. Han 4/5 urtez bizi izan nintzen familiarekin, eta herrimina sumatzean, autoa hartu eta Getariara hurbiltzen ginen. Han egin beharreko lana bukatu nuenean, 1984an, Madrilera bidali ninduten, baina orain-goan emaztea haurdun zegoen eta bera eta semea Getariara etorri ziren.

**Zer moduz kapitaleko esperientzia?**
Desberdina izan zen Madrilgo esperientzia, jakina, inoiz ez nintzen hiri handi batean bizi izan, eta benetan, oso ondo pasa nuen. Garai hartan, Schlumberger Zerbitzu Konpainiarentzat egiten nuen lana, eta zentrala Madrilen zegoen. Handik hainbat lekutara bidaltzen ninduten, itsaso nahiz lehorreko plataformetara: Tarragonara, Murtziara… Petrolio Konpainiek gure aparatuen zerbitzuak eskatzen zituzten; garai hartan nik lan egiten nuen bezalako konpainia gutxi zeuden, eta beraz, lan ugari izaten genuen.

**Gadafiren herrialdean ere izandakoa zara, Libian; pixka bat urruti, hala?**
Bai, egia da; Madrilen ezagututako manager baten bidez joan nintzen hara. Italiarrak proiektu izugarria egin zuten: ikaragarrizko plataforma zen, munduko bigarren handiena, bostehun bat lagun bizi ginen. Herri txiki baten antzekoa zela esan ohi genuen, izan ere, alkatea, polizia, aduana, gimnasioa, sendagileak… zituen, baita herri bateko zerbitzuak ere (kale-garbitzaileak… ); hainbat herrialdetako lagunak (italiarrak, arabiarrak, filipi-

**“Behin, plataformatik irtetean helikopteroari motor bat gelditu zitzaion; a zer sustoa pasa genuen!”**

narrak…), baina hori bai, guztiak gizonezkoak.

**Bitartean familia haziz?**
Bai, egia da. Denbora luzean izaten nintzen kanpoan, eta beraien falta ikaragarri sentitzen nuen; badakizu, semealabak konturatu gabe hazten dira. Pentsa, etxera joateko zenbat egun geratzen ziren kontatzen jarduten genuen, hori izaten zen gure *kirola*.

**Hainbeste herrialdetan bizi eta gero, hizkuntzaren bat ikasiko zenuen, ezta?**
Beno, batez ere ingelesa ikasi dut; italiera, arabiera eta frantsesarekin zerbait moldatzen naiz.

**Etortzen al zinen inoiz Getariara?**
Bai, noski! Han 6 aste egiten nituen, eta gero 3 astez etxera etortzen nintzen.

**Elkarbizitza erraza al zen?**
Bai, jendearen errotazioari esker, nahiko erraza zen. Gela bakoitzean lau lagun izaten ginen. Italiarrak sukaldari oso onak ziren eta garbiak gainera; *Formula 1eko* lasterketaren bat zegoenean, plataforma gelditu egiten zen. Arabiarrei, berriz, broma asko gustatzen zitzaien, umoretsuak ziren: lana egitea ez zitzaien asko gustatzen, baina lanetik kanpo barre asko egiten genuken beraiekin.

**Lurrera joaten al zineten?**
Bai, tarteka basamortura ere joan behar izan nuen, baina nik nahiago nuen plataforman egon, bai garbitasunaren aldetik, bai janariaren aldetik: italiarren lasaggna ikaragarria da!

**Inoiz euskaldunen batekin topatu al zara?**
Bai, pare bat aldiz, bietan bizkaitarrak: bilbotarra bat eta lekeitiarra bestea.

**Plataforma horiek mugitu al**

**Cadizen 1983an, Carmonako *Ciervo 3* plataforman.**

**“Behin baino gehiagotan ikusi genituen Getariako ontziak pasatzen antxoa garaian”**

**daitezke?**
Produkziorako direnak ez dira mugitzen, besteak bai; normalean, itsasontziak bezala mugitzen dira, erremolkadoreen laguntzaz, nahiz eta gelditu aurreko azken maniobrak bakarrik egiteko gai diren.

**Nola joaten zarete plataformetara?**
Normalean helikopteroak jendea garraiatzeko erabiltzen dira, eta itsasontziak, berriz, materiala ekartzeko. Behin, plataformatik irtetean helikopteroari motor bat gelditu zitzaion; a zer sustoa pasa genuen!

**Itsaso zabalean, eguraldi txarra makina bat aldiz izango zenuten. Plataforman nabari al zen mugimendurik?**
Afrikako beroa eta iparraldeko hotza elkartzen zen lekuan geunden, eta ondorioz, eguraldi oso txarrak izaten ziren. Gure plataforma ez zen mugitzen, baina haize handia zegoenean pixka bat sumatzen zen.

**Zenbat urte egin zenituen guztira?**
Hamalau! 1998an bukatu nuen hango lana; geroztik, Pau-en egon nintzen lanean, baita Getarian ere (kamioilari). Azken bost urteetan, Holandan izan naiz lanean: bai lurrean eta baita itsasoan ere (helikopteroz 45 minutura zegoen plataforma batean).

**Holandako eta Libiako plataformen artean alderik ba al dago?**
Bai horixe! Holandan zorrotzagoak dira: hamabi ordu baino gehiago ezin da lan egin, Libian, aldiz, hogeita lau ordu; Holandan, gela bakoitzean 2 lagun egon daitezke gehienez eta plataforman ezin daiteke egon 15 egun baino gehiago. Bestalde, plataformara joan baino hogeita lau ordu lehenago ezin da alkoholik edan, bestela kalera zoaz. Ahaztu gabe, Holandan edozein lanpostutan aurki daitezke emakumezkoak!

## “Herrimina sumatzean, autoa hartu eta Getariara hurbiltzen ginen”

**Abenduaren 15ean azken lan eguna izan zen; orain zer?**
Baratza txiki bat daukat eta han pasatzen dugu eguna emazteak eta biok; beti dago zeregina: moztu, landatu... baina gustura. Belar berdea gustatzen zait: izan ere, Libian basamortuarekin nazkatuta bukatu nuen; hori dela eta erosi genuen baratza dagoen lur zatia.

**Ohituko al zara?**
Bai horixe! Nola ez naiz ohituko, ba!

Amaia Iribar eta Maider Ostolaza

Argazkia: Mancisidor

# San Anton Jaiak 07

Argazkia: Erun

Aspaldi ikusi ez den idi-dema erakustaldiarekin eman zitzaion hasiera aurtengo San Anton Jaiei; Harritarten egindako proban, Oikiako Zoutz Beheko idi parea Oikiako Artabilla astoaren aurka aritu ziren, eta astoak irabazi zuen!
Egun berean, bertso-jaialdi arrakastatsua izan zen ez-ohiko leku paregabean: Salbatore Deunaren Elizan; sei bertsolari aurrez aurre: Andoni Egaña, Xabier Silbeira, Amets Arzallus, Amaia Agirre, Zigor Enbeita eta Xabier Paia.
San Anton Egunaren bezperan, hainbat ekitaldi izan ziren: txokolatada, buruhandi eta erraldoiak, Kanpanolue haur-berbena eta Baltse Txapelketa Herrikoia.
Giro ezin hobea izan zen San Anton Egunean: uzta berriaren aurkezpenak jendetza handia bildu zuen, eta Getariako Txakolina Jatorrizko Izendapenaren barruan dauden 17 upeltegiek dastatzera emandako 1.500 botila ziztu batean bukatu ziren. Aurtengo Mahasti Jaun oroigarriak, Martin Berasategi eta Hilario Arbelaitz sukaldariek jaso zituzten; bestalde, II. Pintxo Lehiaketa Mahasti tabernak irabazi zuen. Ohitura den bezala, bertsolariak eta herri-kirolak izan ziren eguneko beste ekintzak.
Hilaren 21ean, IV. San Anton Zaldi Lasterketak eta Musika Bandaren emanaldiak eman zieten amaiera aurtengo jaiei.

Argazkia: Erun

# Gaztelekua

## Gazteen txokoa

Bada hilabete Getariako Gaztelekua inaguratu zela Alondiga Zaharrean, abenduaren 22an hain zuzen ere, eta badirudi, geroztik martxa onean diharduela.

Herrian, Gaztelekuaren beharra nabaria zen, hutsunea zegoen adin horretan, eta hala baieztatu zuten Udalaren Drogomenpekotasunaren Planaren barnean parte hartu zuten entite guztiek. Arazo horri aurre egiteko, Udalak gaztelekua irekitzea erabaki du Alondiga Zaharrean, eta guztia kudeatzeko, Donostiako Hezizerb Elkartea aukeratu du. Getariakoarekin batera elkarte hori Hondarribiako, Andoaingo, Debako gaztelekuen eta beste hainbat herritako gestioaz arduratzen da.

Gaztelekua, 12 urtetik 17 urtera bitarteko gazteei zuzenduta dago: izenak dioen bezala, adin horretako gazteak egon daitezkeen txoko bat, *leku* bat da; izan ere, adin txikikoek ezin dute tabernetan sartu, eta horrenbestez, kalean egon behar izaten dute.
Eguraldia lagun denean, beharbada, ez da txoko horren falta izango, baina neguan, gustura hartzen da babesa eta epeltasuna ematen duen leku bat. Beraz, hemendik aurrera, Gaztelekuaren irekierarekin, adin horietako gazteek badute non egona.

Gaztelekura ostiraletik igandera joan daitezke, arratsaldez; oporrak direnean, aldiz, egunak zein ordutegiak aldatu egingo dira.
Hezizerb Elkarteak bi hezitzaile jarri ditu lanean; horien lana, batez ere, koordinazioa eta gazteak begiratzea izango da, eta astean zehar, programaketak, aurrekontuak… prestatuko dituzte. Hori guztia, Udaleko Gizarte Ongizate batzordeari aurkeztu beharko dio, eta tarteka, Kultura batzordearekin ere harremana izango dute. Horrez gain, gazte bakoitzari fitxa bat betearaziko zaio,eta arazoren bat izanez gero, Hezizerb Elkartea jarriko da gurasoekin harremanetan.

**Gaztelekua, 12 urtetik 17 urtera bitarteko gazteei zuzenduta dago**

**Gazteak PlayStationarekin jolasean.**

Gaztelekuan hainbat ekintza burutu ditzakete: ordenagailuan ibili (laster Internet jarriko da), futbolinean jolastu (pin-pon mahaia jartzeko asmoa dago), telebista ikusi (une honetan PlayStationarekin jolasteko eta DVDak ikusteko aukera ematen du, baina hemendik gutxira telebistako antena jartzekoak dira) eta tailerretan parte hartu; horietaz gainera, mahaiak daude, eta bertan, partxisean, karta jokoan… jarduten dute. Gaztelekura janaria, freskaga-

rriak, musika, DVDak… eraman ahal izango dira, beti ere txukun uztekotan.

Bestalde, gazteek eta hezitzaileek hilean behin bilera bat izango dute: guztien artean adostuko dituzte aurrerago egingo diren ekintza guztiak: txapelketak, irteerak (hilean behin izango dira eta beti gurasoen baimena izan beharko dute), tailerrak, aldizkarien aukeraketa… Erabakitako guztia agertzeko panel bat dute, eta bertan ikus daitezke antolatu nahi diren ekintzen egutegia, jokoetan eta tailerretan parte hartzeko zerrenda (astebete lehenago eman behar da izena)…

Aurrera begira, hainbat asmo dituzte: beste herritako gaztelekuekin harremana izan, kanpo ekintzak ugaritu (frontenis lehiaketa…), uztailean hiru eguneko irteera…

Argi dago Gaztelekua lehen pausuak ematen ari dela, eta gazteen erantzuna ikusirik, badirudi oinez ongi ikasiko duela; orain, antolatu duten logotipo eta izenaren lehiaketarekin, izen berria jartzea bakarrik falta zaio.

**ARGAZKIAK:**

**1-** Hainbat aktibitate egiteko aretoa

**2-** Ordenagailu gela

**3-** Sarrera eta hezitzaileen gela

1

2

3

**Guztien artean adostuko dituzte aurrerago egingo diren ekintza guztiak**

# Eskolan ere bertsotan

Eskolan **AHOSKOTASUNA** lantzeko eta bertsolaritza mundua ezagutzeko tailer bat geneukan. Azken bolada honetan beste ikasgaien artean lantzen ari gara tailer egituratik irten eta eguneroko jardunean txertatuz. Horrela abesti zaharrak ezagutu, ikasi eta bertsoen doinuak zein egiturak aztertzen ditugu. Talde txikietan ere zenbait bertso asmatzera ausartzen gara eta jarraian dituzue hauetako batzuk.

**ZORTZIKO TXIKIA LANTZEN**

Zortziko txikiak zortzi lerro ditu. Lerro hauek binaka doaz, lau puntu osatuz. Puntu bakoitzaren bukaeran, oina doa; beraz, lau oin ditu. Lau oin horiek errima izan behar dute; azken silaba berdina edo antzekoa behar dute. Puntu bakoitzeko lehenengo lerrok 7 silaba ditu, eta bigarrenak 6.

**GAIA:** SAN ANTON JAIAK.

**OINAK:** Mordua // Bixigua // Sua // Amua // Xagua// Purua // Mundua.// Mutua //.....

**DOINUA:** Maritxu Nora zoaz.

*GE-TA-RI-KO HE-RRI-AN*
*PO-LI-TA POR-TU-A*
*TXA-KO-LI-NA E-DA-TEN*
*BA-DU-GU GO-GU-A*

*GU-RE KA-LE ZAHA-RRE-TAN*
*U-GA-RI KA-TU-A*
*E-TXE-TA-KO ZU-LO-TAN*
*BI-ZI DA XA-GU-A*

*GE-TA-RI-AN BA-DA-GO*
*POR-TU-AN XA-GU-A*
*KO-FRA-DI-AN- SAL-TZEN DA*
*BI-XI-GU TA_AN-TXU-A*

*GE-RO JA-TE-KO E-GIN*
*BE-HAR DU-GU- SU-A*
*GO-XU-A E-GO-TE-KO*
*SAL-TSA TA LE-TXU-A*

*GE-TA-RI-AN FES-TE-TAN*
*DA-GO BI-XI-GU-A*
*FA-MI-LI BA-KOI-TZE-AN*
*DAU-KA-TE MOR-DU-A*

*HO-RI HA-RRA-PA-TZE-KO*
*BE-HAR DA A-MU-A*
*HOR-TAZ A-RRAN-TZA-LE-AK*
*EZ E-DAN AR-DU-A.*

*SAN-AN-TO-NE-TAN DA-GO*
*BI-XI-GU MOR-DU-A*
*E-TA AS-KO-TAN- DU-GU*
*TXA-KO-LIN NAHI-KU-A*

*HOR-TAZ KA-TU-AK EZ JAN*
*AS-KO BI-XI-GU-A*
*KA-BE-ZU-DO TA FES-TA*
*DI-RA GO-GO-KU-A*

**4.MAILA**

elan euskadi
ONGD - GGKE

# GETARIA ETA HIRUGARREN MUNDUA, JARDUNALDIAK

Getaria eta Hirugarren Mundua izeneko jardunaldien XIV. ekitaldia izan da aurtengoa. Urtarrilaren 22tik 26ra bitartean burutu ziren. Hainbat hitzaldik eta Iturzaeta Herri Eskolako haurrekin eginiko jolas kooperatiboek osatu dute 2007ko saioa, Elan-Euskadik antolatuta.

Amerika izan da protagonista nagusia: Elanek Venezuelan dituen proiektuak, Bolivian dauden hezkuntza bereziaren inguruko beharrak, Miguel Angel Jimenezen eta Itziar Egañaren dokumentala "Venezuela Venezuelatik", eta gertuko elkarlana gai hartuta Kolonbia eta Sahararen adibideak.

Hurrengo lerroetan hitzaldietan parte hartutako getariarrek esandakoaren pasarte batzuk jasoko ditugu. Lehen egunean Nahia Inza eta Ane Lertxundi aritu ziren Elanen proiektuen inguruan, Nahiak Venezuelan Gobernuz Kanpoko Erakunde getariarrak abian duen genero indarkeriaren programa zehaztu zuen. Bertan, Casa de la mujer Juana Ramírez La Avanzadora izeneko gobernuz kanpoko erakundea gizon-emakume desberdintasunaren aurka eta honek sortzen duen biolentziaren inguruan ari da lanean. Elan talde honekin elkarlanean aritzen da. Nahia Venezuelako Aragua estatuko hiriburuan egon da, Maracayen. Hiri honek 477.000 biztanle inguru ditu. Nahiaren esanetan, "alde batetik, erabiltzaileei arreta zuzena dago, honekin, egoera hauetakoren batean aurkitzen den jendeari, aholkularitza psikologiko eta juridikoa eskaintzen zaio. Momentu honetan, 7 abokatu eta 2 psikologa daude lanean bertan eta kontsulta hauen bidez, erabiltzaileei dibortzioak eta denuntziak tramitatzen laguntzen zaie. Honetaz gain, prebentzio arloari dagokionez ere lanketa ezberdinak burutzen dituzte. Orain arte, Maracayko komisaria ezberdinetako poliziei ikastaroak eman zaizkie kasu hauen inguruan hartu beharreko jarrerak lantzeko, eskola ezberdinetako irakasleekin ere berdin egiten da... Bestalde, publikoki ere hainbat ekimen burutzen dituzte, hamabostero, bertako egunkari batean artikulu bat idazten dute, foro eta txarla publikoak burutzen dituzte kasu gogor eta konkretuen inguruan, garai batean irratian mikro erradialak emititzen zituzten astero gai ezberdinen inguruan, dokumentazio zentro bat ere badute, etab. Hori guztia Elanek hainbat udalen bidez bideraturiko diru laguntzei esker burutzen da".

Haritz Alberdi jardunaldietako batean.

Haritz Alberdi abuztuan izan zen Kolonbian, "lehen 20 egunak "comite de solidaridad con los presos politicos" elkarteko kideekin Kali hirian, Valle del Cauca eta Caucan izan ginen errealitate desberdinak ikusten. Azken astea Bogota hiriburuan igaro genuen gauza desberdinak eginez". Bizipen ederrak jaso izan zituzten "topaketa indigena batzuetan parte hartu genuen Muniche de los Tigres beredan. 400 bat urte topaketa hauek egin gabe egon ondoren orain bi urte hasi ziren berriro egiten eta hurrengo urtean Canoa beredan egingo dituzte. Milaka indigenek parte hartu zuten topaketak iraun zuen 3 egunetan. Suarez herrian dagoen Represa de Salvajinas ikusten egon ginen. Urtegi hau Union Fenosak eraikia da, elektrizitatea lortu asmoz.

Bertakoen iritzia kontutan hartu gabe eta indarrez eraikia izan zen.

Biodibertsitatean nahiz herritarren artean kalte handiak eragin ditu.

Minetatik eta nekazaritzatik bizi ziren baina denak desagertu zituzten.

Orain gainera handitu nahi dute eta honen aurka agertu dira herritarrak.

Brisas del Bosque desplazatuen asentamendua ikusi genuen.

Paramilitarren mehatxutik ihesiz iritsi ziren 1500 bat famili Kaliko leku

honetara. Interes ekonomikoak tarteko gau batean poliziak desalojo indartsu bat egin, etxe guztiak erre, 6 hilabeteko haur bat hil eta orain gelditzen diren 100 bat famili berriro desalojatzeko mehatxupean zeuden. Egoera gogorra bezain penagarria bizi izan genuen. Hunkigarria benetan".

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
faxa: 943 140 604
Mobila: 652 775 061
E-posta: eugeniouranga@hotmail.com

Amaia Lazkano
Miren Lazkano
San Prudentzioa auzoa
telefonoa: 943 14 00 67
Mugikorra: 669 258 061
faxa: 943 14 05 44
20808
GETARIA
Xabin Etxea
LANDA ETXEA – JATETXEA

**Artzapeko aldizkariaren atalen familia barruko ume berriaren aurrean zaudete. Hau arlo berri baten abiapuntu eta jaiotza da.**

**Bi ardatz izango ditu atal berri honek: alde batetik ipuin txiki bat agertuko da, ipuin honek gure eguneroko bizitzan mugitzen zaizkigun hainbat sentipen, emozio, zalantza, buru argitasun zein iluntasunetaz zer gogoeta egin ekarri nahi genuke.**

**Beste aldetik ipuinak erakarri dizkizuen oroimenak, iritziak, gogoetak, bizitako esperientziak... eta halakoak idatzi eta bidaltzea eskatzen dizuegu hurrengo alean argitaratzeko. Hori izango da hain zuzen, orriaren beste ardatza. Beraz irakurleok iritzi emaile eta idazle bihurtzea da gure asmoetako bat.**

**Atala taldean eramango dugu. Taldea irekia izango da, eta hemendik bertatik denoi esku hartzeko konbitea luzatzen dizuegu, bai ipuinak proposatu, idatzi, itzuli, aukeratu... bai ipuinak sortutako komentarioak, hausnarketak e.a. ekartzeko. Parte hartzeko hainbat bide izango dira: emailez, postaz edo eta gurekin kontaktuan jarri zuzenean.**

**Hona hemen lehengo ipuina.**

# *Nire baitan bi otso borrokan*

Ipar Amerikako Larhwiyip lurraldean bizi izan zen kwakiutl leinua, Stikine ibaiaren ondoan. Leinu horretako semea zen Bufalo Xaloa. Gau eder batean Bufalo Xaloa agurea solasean zegoen ilobekin, su nagusiaren inguruan, ilbetea zilarrezko begi handiarekin beraiei so zegoelarik:

-"Nire baitan borroka latz bat gertatzen ari da... bi otso indartsuen artean. Batak maltzurkeria, beldurra, sumindura, bekaizkeria, oinazea, arrangura, zekenkeria, harropuzkeria, kulpa, erresumina, menekotasuna, gezurra, gailentasuna, norbere burua gutxiestea, egolatria, lehia, handiustea... ditu ezaugarri. Besteak berriz: alaitasuna, onberatasuna, adiskidetasuna, egia, bakea, itxaropena, apaltasuna, maitasuna, baretasuna, gozotasuna, bizi poza errukibera... ditu ezaugarri. Biak nire baitan dira. Guda ikaragarria da, ia etengabea eta nire arretaren parte handi bat hartzen dit".

-Borroka latz hau, jabetzen bazarete ez bazarete, zuen baitan ere gertatzen ari da; bai eta Amalurraren magalean bizi diren izaki guztien barnean ere..."

Umeak pentsakor gelditu ziren aitonaren mezua hausnartuz, sugarren dantzan begirada galduta. Isilune luze baten ondoren Pono–Kamita izeneko ilobak aitonari jakin-minez galdetu zion:

-Zeinek irabaziko du, aitona?

Agureak hau erantzun zion esku zahartuaz ile beltza amultsuki ferekatzen zion bitartean:

-BAZKA EMATEN DIOZUNAK.

# MUNDUKO ABESTIRIK EDERRENA, HITZAT

Lasai egon nahi dinat. Patxadaz hartu gaur arratsaldeko lana. Eta nola karkamari bat naizen, ba Van Gogh-en Belarriaren doinuak jarri dizkinat tokadiskoan... te voy a escribir la canción más bonita del mundo...
Nik ere idatzi ninan, igoal ez munduko abestirik ederrena, baina bai gordea neukanan onena. Baina azalpenik eman gabe ihes egin hunan... sikiera gero arte sotil bat, azken besarkada adeitsu bat, begietara begiratzea besterik ez bada ere...
... Y un día verás que este loco de poco se olvida...
Ikusten dunan bezala, ez naun ahaztu, ez: hire irrien eroa nindunan. Eta gaur, 17 urte pasa ondoren, barraren izkinan ikusi haudanean, arnasa estutu zaidan. Ezberdin hengoen, baina begietara begiratu eta irri egin dunanean, segituan jakin dinat hi hintzela.

- Kafesne bero bat.

Kafesne bero bat. Hiru hitz. Besterik ez. Kortesiazko zer moduz? edo ondo? bezalako esaldi prefabrikatuak espero nizkinan. Baina ez. Ezta hori ere. Laboaren lilia bezala sentitu naun hire begien aurrean, biluzik, kafe-errotatik hauts ehotua ateratzen ninan bitartean. Hirekin izandako ametsak ere, eho-eho eginda geratu zitunan, ai nire lili ihartua!
Mahai gainean utzi dinat kafesne beroa, apartsua, mimo guztiarekin ateratakoa. Banekinan hiru azukre koskorrekin hartzen huela, bi besterik ez nizkinan jarri, ordea, platertxoan. Nire eztenaren aitzakia perfektua:

- Azukre bat gehiago, goxatzeko?

- Beti izan haiz ironikoa. Ez haiz aldatu.

Noski aldatu naizela, hik zer jakingo dun! Ironia zer zunan ez ninan jakin hi ezagutu arte, eta edertasuna izan ezik, gainontzeko guztia kutsatzen den. Baita malizia ere.
Baina hi hirera. Beste bezero bati kasu egiten ari nintzaiola, bizkarra emanda nengoela aprobetxatuz, ospa egin dun. Azalpenik ez, ez adiorik, azken musu adeitsurik ez... sikiera begietara begiratzea... ez ninan besterik eskatzen. Kikara zurian utzitako ezpain arrastoak izan ditun hiri lapurtutako musu bakarrak, buztinezko musu hotzak, hireak, buztinezko bihotz, bihotz hotz.

"…nire sexuan aurkitzen dun, que barbaridad, Bagdad!
idatzi ninan gauez.
Nire zerebroan hasten ditun Canadako basoak;
baina hi heu basorik arbasoena…
Orain, orain hire maitale traketsa naun, maitatzen haunat, etcetera,
negu bezperetan etcetera etcetera…" (Orduan, Mikel Laboa)

- Bi beltz eta gorri bat.

Ardoz erdiraino betetako basoen gainetik tabernaren leihora jarri naun so, kanpoko hotzak eta barruko beroak lurrundutako kristal lausotuei begira. Hire itzala bilatu nahi ninan, lasterka batean higana joan eta blaustada batean oraindik maitatzen haudala esan, koñak botila artean 17 urtean gordetako oparia eman…
Esan egingo dinat: koartila bat den, kolorea galdu duen paperean bildua. Hiretzat idatzitako abestiak zauzkan, nire munduko abestirik ederrenak. Eta hitzaurrean hau zioen:
Askotan galdu ginen basoetako batean, 1990eko ekainaren 30ean
Zorionak, Amets!
Nire zerebroan hasten dira Iratiko basoak;
baina zu zeu basorik arbasoena…

# Josefina Azkue, Meagako serora

**Meagako Azkue Ostatura bazoaz, bertan topatuko duzu ziur aski: alkandora xuria eta praka beltzak soinean, ile zuria motots batean; umoretsu beti, irribarre goxo batekin agurtuko zaitu.**

Familia giroa atsegin du, erabat; era horretan gustatzen zaio lana egitea ostatuan. Bertan bizi da, baina ostatuaren parean zegoen "Kamiyo Etxean" jaiotakoa da. Ostatua, aitona-amonek bere gurasoei pasatakoa da: "Nire aitona-amonaren garaian taberna zen, bailarako jendearen topalekua.1963an, ostatu izatera pasa zen; beraz, dagoeneko badira 43 urte inaguratu zela, pentsa…"

Bizitza guztia Meagan igaro du, bere esanetan, bizitzeko leku paregabea baita. Bertan egin zituen bere haurtzaroko ikasketak: "Garai hartan Meagan eskola zegoen, eta bertara, bailarako ume dezente etortzen ziren, adin desberdinekoak, denak nahastuta: pentsa, pupitreak txikitik handira antolatzen ziren, mailaka. Irakasle onak izan genituen, asko saiatzen ziren: liburuak gaztelaniaz izan arren, beraiek euskaraz azaltzen zuten guztia, eta hori, estimatzekoa da".

**"Pertsona gai den bitartean, gauza ederra da lan egitea"**

Gerora, hainbat ikasketa burutu zituen akademietan: takigrafia, euskara… Bere formakuntza bukatu zuenean, hogeita zortzi bat urte zituela, irakasle izan zen Elkano auzoan: "Lokala oso handia ez izan arren, bailarako ume ugari etortzen zen ikastera: ni nintzen irakaslea, bai, baina umeek niri gehiago irakatsi zidaten; eta begira, konturatu gabe, oso gustura pasatako zortzi urte igaro nituen bertan. Egunero egiten nuen oinez ibilbidea, eta kasualitatez, Diputazioak Elkanorako bidea egin zuenean, orduan amaitu nuen nire hango lana". Bestalde, gau eskolan ere irakasten jarduna da Josefina Meagako Eskolan: "Bailarako jendeak eskatzen zuenean, neguan batez ere, gau eskolak antolatzen ziren; baina horiek ez ziren negu guztietan antolatzen, tarteka eta gogoa zegoenean batez ere".

Azken urteetan serora da Meagako elizan, eta honenbestez, denetik pixka bat egiten du: eliza garbitu, jantzi, ezkontzak direnean apaindu, santuaren leku-aldaketaz arduratu…

Berak, arau bezala hartu du lan hori: "Ez da zaila, gogoa edukiz gero, ez du lana suposatzen, gehienez, jaiero-jaiero saltaka pixka bat egitea: gainera, datorrenarentzat ederra da eliza txukuna bilatzea. Nire ustez, pertsona gai den bitartean, gauza ederra da lan egitea".

Nahiz eta bizitzan hainbat lan egin (irakasle, serora…), ostatuko lana ez du inoiz alde batera utzi: "Ostatuan beti dago zer egina, baina gustura jarduten dut: jende ugari ezagutzeko aukera ematen du lan honek, besteen bizipenen berri izatea ederra da, eta asko ikasten da". Normalean zerbitzari lana egiten du, baina denean jardun behar dela esan digu: "Umorearekin lan egitea gustatzen zait, bizipozarekin, nahiz eta egun denak ez diren berdinak izaten. Familiako lagun ugari biltzen gara lanerako; niretzat, familia giroa edukitzea ona da, beharrezkoa, nahiz eta tarteka amorrazio uneak ere egoten diren".

Denbora librea duenean, astean behin, Meaga inguruan buelta txiki bat ematea gustatzen zaio: "Lehen asko pintatzen nuen, ikaragarri gustatzen zait, baina aspaldian geldituta nago, baina iritsiko da egunen bat berriro hasiko naizena".

Laster 72 negu beteko ditu, otsailaren 9an; beraz, aldez aurretik, ZORIONAK!

## AHOLKU INTERESGARRIAK

Herri arrantzalea izanik hona hemen asko erabiliko duzuen aholku bat:

**- Plater eta ontzietatik arrain usaina kentzeko era egoki bat, ontzi horiek te asko duen uretan sartzea da. Usainak bere horretan jarraitzen badu, tipula edo patata erdi gordin batekin igurtzi eta te uretan pasatu.**

Eguberriak pasa dira, San Antonak ere bai eta Inauteriak bertan ditugunez, biharamunari aurre egiteko aholku bikainak:

**- Esnatzerakoan, laranja zukua edan eta bazkaltzerako orduan, tipula sopa. Buruko minari aurre egiteko beste modu bat: esnatu bezain pronto, tomate zukua, gatza, piper hautsa eta Vodka (Blody Mary) nahastu eta edan; ez du ematen baina, badu eraginik.**

Azken aholkue:

**Negua dator eta berogailuaren energia aurrezteko modu egokia zilarrezko papera berogailua eta ormen artean jartzea da; beroa galdu beharrean, ormak jasotzen duen beroa zilarrezko paperaren bidez gela osora islatzen da. Zure etxea beroago egongo da eta energia aurreztuko duzu.**

## "IHES BETEA" (liburua)

***Idazlea:*** *Anjel Lertxundi*
***Argitaletxea:*** *Alberdania*
***Argitalpen urtea:*** *2006*
***Orrialde kopurua:*** *357*

Anjel Lertxundik kaleratu berri duen liburua da honako hau. Urtero, Durangon egiten den Liburu eta Disko Azokan ikusi zuen argia.

Alemanian, hainbat urtetan bizi izan zuten diktaduraz hitz egiten da; naziek juduekiko zuten mesprezuari buruz, hain zuzen. Honako istorio hau, Werner Lindermannen aitortza da: Werner zaharrak gaztaroko gorabeherak kontatzen ditu eta horretarako kontakizuna hiru zatitan banatzen da: lehenik eta behin, protagonistak judu zela jakin arteko bizipenak kontatzen ditu. Bigarrengoan, Wernerren ihesaldia kontatzen da, urruneko senide Angelorekin Triesten egindako egonaldia; eta azken, eta hirugarren zatian, zenbait ibilaldi narratzen dira.

Bertan nazien ikuspuntuari kritika egiteaz gain, protagonistak gaztetan bizitako gertakariak ere azaltzen dira. Hitlerren jarraitzaile izateak gaztaroa baldintzatu ziola argitzen du protagonistak.

Eleberriaren hasieran, zenbait kontraesan, beldur, zalantza... ageri dira, baina bigarren zatian murgiltzean, kontraesanak alde batera uzten ditu protagonistak. Lan honetan kontatzen diren gertakari gehienak protagonistak helduaroan garatutako kontzientzia eta moralaren bidetik hausnartutakoak dira. Horrek guztiak irakurlearen jakin-mina pizteko gaitasuna du; bide batez, irakurlea txunditzeak egiten du handi eleberri hau.

Anjel Lertxundik, oraingoan ere lan aberatsa egin duela esango nuke nik. Une atseginak biziaraziko dizkigu eleberriak eta bide batez Hitlerren diktadurapean bizi zirenen esperientziak hobeto ezagutzen lagunduko digu.

# ] otsaileko agenda

**[Otsailak 4, igandea]**
SANTA AGEDA BEZPERA

**[Otsailak 4, 11 eta 25 igandeak]**
17:00etan,
ZINE EMANALDIA
**Lekua:**
Herri Eskolako zine-aretoan
**Antolatzailea:**
Guraso Elkartea

**[Otsailak 17, larunbata]**
Arrantzale Zaharren Elkartean,
BATZAR OROKORRA

**[Otsailak 17, 18]**
INAUTERI FESTA GETARIAN
(musika, lehiaketak, mozorroen desfilea, sariak, ...)
**[Martxoa]**
ODOL-EMATEA
**Lekua:**
anbulategian
**Antolatzailea:**
Gure Txeru elkartea

## ] kirolak

**[Otsailak 2, ostirala]**
**ARETO FUTBOLA:** Irizabal Arrainak - GURE TXOKOA-
**Ordua:** 21:30ean
**Lekua:** kiroldegian

**[Otsailak 16, ostirala]**
**ARETO FUTBOLA:** Irizabal Arrainak - JOSTALDI KIROLAK
**Ordua:** 21:30ean
**Lekua:** kiroldegian

**KIROLDEGIKO EKINTZA BERRIAK:**
-GORPUTZ ADIERAZPENA, sentitzeko, adierazteko, komunikatzeko, sortzeko ... 3tik 6 urte bitarteko haurrentzat.
**Irakaslea:** Julene Iturbe
**Iraupena:** otsaila-maiatza
Otsailaren 5ean, 16:15ean, kiroldegian bilera izango da interesa duten guztientzat.

-OINARRIZKO KIROLAK ETA PRESTAKUNTZA – GAITASUN FISIKOEN GARAPENA (futbola, eskubaloia eta saskibaloia) ... 7 urteko (pre-benjaminak) haurrentzat.
Asteazkenetan, 17:00etatik 18:00etara
**Iraupena:**
otsaila-ekaina

## ] lehiaketa

**INAUTERIAK 2007**
-KARTEL LEHIAKETA: Kartel irabazleak aurtengo inauterien aurkezpena egingo du.
-TABERNA ETA DENDEN APAINKETA LEHIAKETA

## ] kz gunea

Otsaileko ordutegia:
17:00etatik 20:00etara
(Asteartetan tutorea egongo da, 09:00etatik 13:00etara)
OTSAILEKO MINTEGIAK:

**[Otsailak 6, asteartea]**
ADOBE ACROBAT
(10:00-12:00)

**[Otsailak 13, asteartea]**
MIKOLOGIA - IBERDROLA
(10:00-12:00)

**[Otsailak 20, asteartea]**
EZAGUTU BIDAIAREN ESKUBIDEAK
(11:00-12:00)

**[Otsailak 2, asteartea]**
FAGOR GIDA GASTRONOMIKOA
(11:00-12:00)
**Lekua:**
Kultur Etxeko lehen solairua

## ] Gaztelekua

**[Otsailak 10, larunbata]**
MOZORRO TAILERRA

**[Otsailak 11, igandea]**
GAZTELEKUKO LOGO LEHIAKETAREN SARI BANAKETA

**[Otsailak 16, ostirala]**
INAUTERI TAILERRA: DEKORAZIOA
**[Otsailak 17-18]**
INAUTERI-FESTA
**[Otsailak 24, larunbata]**
TXURI URDIN eta KUTXA-ESPAZIORA IRTEERA (13-15 urtekoak)

**telefono interesgarriak**

**Udal bulegoa ....943 896 024**
**Faxa .....943 140 190**
**e-mail:udala@getaria.org**
**Kiroldegia .....943 140 432**
**Kirol-portua .....943 580 959**
**Taxiak**
**Segundo .....607 720 242**
**Jose Mari ....607 403 498**
**Udaltzaingoa ....943 896 146**
**Liburutegia .....943 896 147**
**Anbulatorioa ....943 140 957**
**Botika .....943 140 441**
**Herri Eskola.....943 140 729**
**SOSdeiak .....112**
**Kofradia.....943 140 200**

**artzape aldizkaria**
**943 000 548**
**artzape@topagunea.com**

**FULDAIN farmaziaren zaintza egunak: otsailaren 12tik 18ra (biak barne)**

## KARTEL LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. GAIA: Getaria eta inauteriak. DERRIGORREZKO TESTUA, "GETARIAKO INAUTERIAK 2007" ETA …… (LEMA BAT)
2. Getariarrei zuzenduta dago.
3. Adin guztietako herritarrek har dezakete parte.
4. Edozein eratako lanak onartuko dira.
5. Kartelak A3 neurrikoa izan behar du.
6. Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztuko du.
7. Egilearen izena eta datuak gutun-azal batean sartu behar dira. KARTELAK EZ DIRA IZENPETUKO.
8. Lanak aurkezteko azken eguna eta ordua: OTSAILAren 7a, 19:30ean.
9. Lan guztiak Getariako Udal Liburutegira eramango dira.
10. Epez kanpo ez da lanik onartuko.
11. Epaimahaia, Kultura Batzordeak, herriko entitateek eta artistek osatuko dute. Erabakia otsailaren 7an hartuko da.
12. Saritutako kartelek Getariako Inauteriak 2007ko jai egitaraua iragarriko dute. Kartel irabazleak Udalaren esku geratuko dira, eta aurkeztutako lan guztien argitarapen eskubideak izango ditu.
13. SARIAK:
- 2-5 urte bitartekoentzat: PINTATZEKO MATERIALA
- 1. mailatik 3. mailara: PINTATZEKO MATERIALA
- 4. mailatik 6. mailara: PINTATZEKO MATERIALA
- DBH ikasten ari direnentzat: MP4 bat
- 16 urtetik gorakoentzat: 150 €

14. Aurkeztutako kartelekin erakusketa egingo da udaletxeko sarreran (otsailaren 13tik 19ra), eta irabazi ez duten kartelak erakusketa itxi eta hurrengo hamabost egunetan eskuratu ahal izango dituzte egileek.
15. LEHIAKETA HONETAN PARTE HARTZEAK OINARRI EDO BALDINTZA HAUEK OSORIK ONARTZEN DIRELA ESAN NAHI DU.

# ] akordatzen

## “Inauteri, karnabal, aratuste...”

Pedro Iribarrenak utzitako argazkia.

Inauteri, ihauteri, inaute, karnabal, aratuste, zanpatzar... era askotara izendatzen diren festa egunak dira; Euskal Herriko herri askotan mozorroz, musikaz, dantzaz... ospatzen diren festak izaten dira, esaterako: Lantzeko inauteriak, Ituren eta Zubietako joaldunak, Tolosako inauteriak, Mundakako aratusteak...

Inauterien jatorria zein den garbi ez badago ere, herrialde katolikoetan, Bazko egunaren aurreko 50. egunean hasi eta Hausterre egunean bukatzen diren jaiak dira. Ondoren, benetako kristauek, 40 eguneko Garizuma aldian ez dute haragirik jango.

Pedro Iribarrenak utzitako argazki honetan, ez dakigu haratuste handirik egingo ote zuten, baina ederki pasatzen bazekitela garbi dago. Gu ez gara gutxiago izango, beraz, mozorroa soinean hartu eta ondo pasa inauteriak!

**Atal honetan jartzeko moduko argazki zaharren bat baduzu, deitu 943000548 telefonora edo artzape@topagunea.com helbidera bidali.**

## zorion agurrak



**Iban Altuna eta Unax Iraeta**
**Martxoak 7 eta otsailak 26**
Zorionak etxeko bi bandidoei,
bat bestea baino handiago.
Ondo pasa zuen eguna. Muxu handi bana.

**Gaizka eta Inazio Arruabarrena**
**Otsailak 9 eta 16**
Zorionak pare!! Egun ederra pasako dezutelakoan,
muxu handi bat etxekoen partetik.



**Luis eta Esteban Berasaluze**
**Otsailak 16 eta 22**
Zuen arreben partetik zorionak!
Egun ona pasa eta muxu handi bana biontzat.



**Iñaki eta Kattalin**
**Otsailak 1 eta 8**
Zorionak!! aita-alabari ez galdu inoiz irribarre
hori, kiloka muxu bioi. Maite zaituztegu.
Larrazabal-Iturralde familia.

**Adiuntz eta Garikoitz**
**Otsailak 12 eta 17**
Zorionak bikote. Ondo pasa zuen urtebetetze
eguna, baita 3. ezkontza urteurrena ere.
Muxu handi bat.

**Beñat Olabarri**
**Urtarrilak 31**
Zorionak potxolo! Aurten lau kandela itzaliko dituzu! Muxu bat aitaama eta etxekoen partetik.

**Zigor Saizar eta Josune Urresti**
**Otsailak 1 eta 12**
Urteak aurrera doazela, e?
Bizkotxoaren zain gaude!
Zorionak Artzapeko lan taldearen partetik.


Getariako Txakolina
DENOMINACION DE ORIGEN
Aldamar Parkea, 4
TEL: 943 14 03 23 Faxa: 943 89 60 30
20808 GETARIA
www.getaraiakotxakolina.com/Info@getaraikotxakolina.com
AGERRE ARREGI GAINTZA TALAI-BERRI
AIZPURUA BASA-LORE GAÑETA TXOMIN ETXANIZ
AKARREGI-TXIKI EIZAGUIRRE REZABAL ULACIA
AMEZTOI ETXETXO SANTARBA ZUDUGARAI


Norbait zoriondu nahi izanez gero argazkia bere testutxoarekin Txeruko postontzian utzi edo eta Eskualtxetara eraman. Gogoratu! bazkideek doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4 € ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.

# KARRANTZA-IRUÑEA 2007

## *MARTXOAREN 22tik APIRILAREN 1era*